

FUNTSEZKO JARDUERAK

Gure proiektuak funtzionatzeko, plan estrategiko bat garatu behar dugu, horretarako zein helburu dauzkagun, nola lortuko ditugun eta zer baliabide izango ditugun kontuan hartu behar dugu. Hori dela eta, boluntarioen kudeaketa eta prestakuntza beharrezkoa izango da emozionalki zaintzen edo adinekoen behar psikologiko eta sozialei aurre egiteko. Era berean, boluntarioen motibazioa garrantzitsua izango da, eta horretarako lan-baldintzak onak izatea ezinbestekoak dira, hala nola, lan-ingurune segurua eta osasungarria, ordutegi malgua eta lankidetzak. Finantzaketa ere ezinbestekoa da, baliabide propioak eta kanpo finantzaketa lortzeko, hala nola diru-laguntzak, maileguak edo gizarte funtsekin diru-laguntzak jasotzea.



Horretaz gain, gure enpresaren jarduera zerbitzuen prestazioa da, ez ekoizpena. Zehazki, gure enpresa adinekoen zaintzako zerbitzuak eskaintzen ditu egoitzetan, boluntarioen bidez. Enpresaren jarduera nagusia, boluntarioen sare bat antolatzea da, eta hauek zaintza-zerbitzuak eskaintzen dituzte adinekoentzako egoitzetan, pertsona bakoitzaren behar eta egoeraren arabera. Zerbitzu hauen artean egon daitezke: laguntza eguneroko bizitzako zereginetan, osasun arretako jarraipena, higiene eta elikadura laguntza, eta emozionalki adinekoei laguntzea.

